



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA EKONOMIA,
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, EAE-KO PARTE-HARTZE
INSTITUZIONALARI ETA ELKARRIZKETA SOZIALARI BURUZKO LEGE-
AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jardura xedapen orokorrak egiteko, baldin, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak badauzkate eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen badute.

Lege horren 12. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen sailburuaren aginduz hasiko dela; bestalde, lege beraren 13. artikulua zehazten du prozedura hasteko agindu horrek zer eduki jaso beharko dituen.

Horrenbestez, egokia da agindu honen bidez hasiera ematea EAEko parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko lege-aurreproiektua egiteko prozedurari.

Era berean, kontuan hartzen da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoa, bertan ezartzen baita arauen kalitatearen zer printzipio bete behar diren arauak egiteko ekimena baliatzean.

Arauren xedea eta helburua.

Egin nahi den arauaren xedea da esparru juridiko orokor, komun eta sistematiko bat ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak handiena duten antolakunde sindikalek eta enpresaburuen antolakundeek parte hartu dezaten euskal sektore publikoan lan- eta gizarte-arloko eta arlo sozioekonomikoko eskumenak dituzten organo, entitate eta ente instrumentaletan. Halaber, lege-estaldura eman nahi zaio Elkarrizketa Sozialaren Mahaiari, hiru alderdiko ituntze-organo iraunkorra den heinean.

Etorkizuneko legeak lehendik dagoen errealitate instituzional bat antolatzea lortu nahi du, gaur egun modu sakabanatuan eta heterogeneoan hedatuta baitago; horretarako, legitimazio- eta ordezkagarritasun-irizpide objektiboak ezarri nahi ditu, bai eta subjektu parte-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak zehaztu ere; horrez gain, sistemaren segurtasun juridikoa, gardentasuna eta koherentzia indartuko dituen araubide komun bat definitzea ere bilatzen du.



Legearen helburua da EAEko erakunde publikoen kalitate demokratikoa indartzea eta elkarrikeria sozialerako eta parte-hartze instituzionalerako eredu egonkor bat finkatzea, politika publiko sozioekonomiko eta laboralen diseinua, aplikazioa, jarraipena eta ebaluazioa hobetzen laguntzeko, betiere eskumen publikoak eta antolakunde sindikalen eta enpresaburuen antolakundearen autonomia erabat errespetatuz.

Ekimenaren asmoa da, gainera, gobernantza parte-hartzailearen eredu gardenagoa, egonkorragoa eta aurreikusgarriagoa finkatzea, dauden ituntze sozialeko espazioen jarraitutasun instituzionalari lagunduz eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan parte-hartze instituzionala gauzatzeko oinarri komunak ezartzea bultzatuz.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Legegintzako ekimena Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenak baliatuz ematen da —alegia, bere autogobernu-erakundeak antolatzeke, bere sektore publikoa ordenatzeko eta lan-arloan eta arlo sozioekonomikoan garrantzia duten gaitetan instituzioen partaidetza-bideak artikulatzeko eskumenak baliatuz—, Konstituzioaren, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren eta aplikatzekoa den oinarritzko legeriaren esparruan.

Ikuspegi juridikotik, aurreproiektuak, besteak beste, xedapen hauetan du oinarria: Espainiako Konstituzioaren 7. eta 9.2 artikulua; Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. artikulua; sindikatuen eta enpresaburuen ordezkartza handiena arautzen duen araudia, eta irizpide objektibo, arrazoizko eta proportzionatueta oinarritutako parte-hartze instituzionalerako formulak onartzen dituen konstituzio-doktrina.

Testua egitean, kontuan hartuko da etorkizuneko Parte Hartze Instituzionalaren Euskal Legearen Oinarriari buruzko Erabakia, 2026ko apirilaren 14an Euskadiko Elkarrikeria Sozialaren Mahaiaren barruan sinatua; izan ere, aurrekari garrantzitsua da etorkizuneko erregulazioaren printzipioak eta orientabide orokorrak definitzeko.

Etorkizuneko legeak, halaber, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eta Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluaren berezko eremuak errespetatuko ditu, haren aplikazio-eremu materialetik kanpo geratzeko baitira.

Lege horrek, nolana ere, honako hauek errespetatu beharko ditu: konstituzio- eta estatutu-esparrua; askatasun sindikalaren, enpresaburuen ordezkartza eta lan-harremanen arloan aplikatu beharreko Estatuko oinarritzko araudia, eta indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikoa, barnean dela datu pertsonalen babesari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, irisgarritasun unibertsalari, hizkuntza-eskubideei, gardentasunari eta gobernu onari buruzko araudia.

Ikuspuntu materialetik, ekimena bideragarria da, Euskadin lehendik dagoen esperientzia instituzionaletik abiatzen baita, bai parte-hartze instituzionaleko organoei dagokienez, bai Elkarrikeria Sozialaren Mahaiari dagokionez, eta, funtsean, dagoeneko ezarrita

dauden praktikak eta egiturak antolatzeko, sistematizatzeko eta haiei egonkortasuna emateko helburua du.

Aurreproiektua egiteak aukera emango du antolamendu-, funtzio- eta aurrekontu-inplikazioak zehazteko, bai eta araua eraginkortasunez ezartzeko beharrezkoak diren araudi- eta funtzionamendu-egokitzapenak zehazteko ere.

Ordenamendu juridikoaren gainerako ondorioak.

Legea onartzeak berekin ekarriko du parte-hartze instituzionalari eta elkarriketa sozialari buruzko lege-esparru orokor bat txertatzea EAEko ordenamendu juridikoan, eta zeharkako erregulazio komun bat ezarriko du ordezkari-tza handieneko antolakunde sindikalentzat eta enpresaburuen antolakundeentzat Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin duten harremanean.

Arauk eragin zuzena izango du bere eremuko parte-hartze instituzionaleko organo eta espazioen konfigurazioan eta funtzionamenduan, bai eta Elkarriketa Sozialaren Mahaiaren estaldura juridikoan eta funtzionamenduan ere, hargatik eragotzi gabe organo bakoitzaren berezitasunak eta aplikatzekoa den araudi sektorial espezifikoak.

Halaber, legeak parte-hartze instituzionaleko organoak arautzen dituzten indarreko arauak egokitzeko eskatu ahal izango du, eta haien ondorengo erregelamendu-garapena gaitu ere bai antolamendu- edo prozedura-zehaztapena behar duten alderdietan.

Ordenamendu sektorialaren ikuspegitik, ekimenak bat etorri behar du askatasun sindikalari, enpresaburuen ordezkari-tzari eta lan-harremanei buruzko Estatuko araudiarekin, bai eta EAEko erakunde-legeriarekin eta administrazio-antolamenduari buruzkoarekin ere, eta gainjartzeak edo kontraesanak saihestu behar ditu lege-erregulazio propioa duten organoeekin.

Zer eragin izango duen ekonomian eta aurrekontuetan.

Beharrezkotzat jotzen da memoria ekonomiko espezifiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako eran, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz —dekretu horren bidez barne-ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuan—.

Zer izapide eta txosten jotzen diren egokitzeak.

6/2022 Legearen 13.1 artikulua e) apartatuan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko aginduak zehaztu behar du zein diren egoki iritzitako izapide eta txostenak, proposatu den araudiaren gaia eta edukia aintzat hartuta. Horretarako, jarraian zehazten dira zein jotzen diren egokitzeak, hasiera batean, lege-aurreproiektua egiteko eta izapidetzeko.

1.– Aldez aurreko kontsulta publikoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan eta 6/2022 Legearen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aldez aurreko kontsulta publikoa egin behar da xedapen orokorren proiektuak egin aurretik, salbu eta beharrezkoa ez denean arauak garrantzi handirik ez duelako edo interes publikoko arrazoiak tartean daudelako. Kasu honetan, izapide hori EAEko parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko lege-aurreproiektuaren aurretiazko kontsulta publikoaren aginduaren bidez bideratu da, eta hamabost egun balioduneko epea ireki da iradokizunak eta oharrak egiteko.

2.– Prozedura hasteko agindua egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legegunean argitaratzea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, argitaratzearekin batera, era automatikoan jakinaraziko zaie sail guztiei, ekimenaren bidez kotatutakoari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten, hala badagokio.

Era berean, administrazioaren jardura oinarritu eta orientatu behar duten gardentasun- eta partaidetza-printzipioei erantzuteko, prozedura hasteko agindu hau Legegunean jarriko da, gune hori baita herritarren eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak sortzen edo garatzen duen garrantzi juridikoko informazioaren arteko topagunea, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako pertsonen eskubideekin.

3.- Testua idaztea.

Lege-aurreproiektuaren testua agindu honen edukiaren arabera idatziko da, eta aintzat hartuko dira lortu nahi diren helburuei ondoen egokitzen zaizkien aukerak, beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak betez, eta kontuan hartuz aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitza, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan arabera.

Testuak lege-aurreproiektua justifikatzen duten arrazoi eta oinarri juridikoen azalpen egokia jaso behar du, 6/2022 Legearen 14.2 artikuluan eta Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenaren 4.3.1 puntuan aurreikusten den bezala.

Idatzitako testua ele bitan idatzi beharko da, aldez aurreko onarpenera jaso eta izapidetu aurretik. Araua idazteko prozesu osoan, hizkuntza-bertsioak landu bitartean, hizkuntza bien arteko berdintasuna bermatuko da, eta hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiliko da, 6/2022 Legearen 14.5 artikulua ezartzen duen moduan, eta Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen Erabakian ezarritakoa aplikatuz. Erabaki horrek neurriak onartu zituen lege, legegintzako dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko.

4.- Generoaren arabera eraginaren txostena.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikulua ezartzen duenaren arabera, aurreproiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabera eraginari buruzko dagokion txostena idatzi eta Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen eskura jarriko da dagozkion ondorioetarako.

Txosten horren beharra bat dator martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoarekin —1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena—; txostenaren lanketan, generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideak beteko dira, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean hartu zuen Erabakiaren bidez onartuak (erabakia 2012ko irailaren 25eko EHAA argitaratu zen, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak abuztuaren 21ean eman zuen 40/2012 Ebazpenaren bidez).

5.- Arau-eraginaren azterketaren memoria.

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak, nahitaez, arau-eraginaren azterketaren memoria egingo du, aipatutako xedapenean aurreikusitako moduan eta bertan aipatutako edukiak kontuan hartuta.

6.- Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- Memoria ekonomikoa.

Lehenago esan bezala, beharrezkotzat jotzen da memoria ekonomiko espezifiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako moduan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

8.- Araudi-proiektuaren aldez aurreko onarpena eta egoitza elektronikoan eta Legegunean argitaratzea.

Dagozkion entzunaldiaren, informazio publikoaren, partaidetzaren eta kontsultaren izapideak egin aurretik, lege-aurreproiektuak Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren onespina jaso beharko du, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldez aurreko onarpenaren aginduekin batera, onartutako testu elebiduna eta aurreko apartatuetan adierazitako gainerako dokumentuak aurkeztuko dira. Horiek guztiek osatuko dute espedientea.

Aldez aurretik onartuta dagoen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da, bereziki 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan adierazitako ondorioetarako, kontuan hartuta argitalpen horren data izango dela aldi berean bideratzen diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera.

Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, harekin batera, araugintza-proiektua, Legegunean emango dira argitara.

9.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Arau-testua aurretiaz onartu ondoren, 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da, herritarren parte-hartzearekin lotutako eskakizunak betetzeko.

Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak jarraitutasunez edo beste une batean egitea eskatzen ez duten izapideekin batera egingo dira, epe komun berean, aldez aurreko onespena jaso duen testua Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik hasita.

Entzunaldiaren izapidean, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak handieneko antolakunde sindikalen eta ordezkariak handiena duen sektorearteko enpresaburuen antolakundearen ekarpenak jasoko dira, aurreproiektuaren edukiak zuzenean eragiten baitie.

10.- Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea.

Aldi berean, beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapidea egingo da, 6/2022 Legearen 18. artikuluan aurreikusita baitago. Izapide hori hiru foru-aldundien eta EUDLEN bidez egingo da, kontuan izanik EAEko sistema instituzionalean duten posizio instituzionala eta etorkizuneko legeak interes komuneke jarduketaren eremuetan izan dezakeen proiektzioa.

11.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Prozedura instruitzean, dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak egiteko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, txosten hauek bildu behar dira:

- **Aldi berean eskatuko diren txostenak**, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz:

- Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako jarraibideetako lehenengoan (2.1.a) xedatutakoaren arabera.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, hala xedatuta baitago Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan. Dekretu horren bidez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen da.
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena, bat etorritik Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. eta 7.3.b) artikuluekin.
- Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailean herritarrek artatzeko eta administrazioa berritzeko eskumena duen organoaren txostena, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 21.1 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

-. **Ondoz ondo bete beharreko funtsezko txostenak**, aurreko izapideak amaitzen direnean:

- Politika ekonomiko eta sozialarekin lotutako lege-aurreproiektu bat denez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bat etorritik ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 20. artikuluekin.
- Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, aurreproiektuak lan-arloko politikarekin eta elkarrikeraren sozialaren antolamenduekin eta ordezkaritza handieneko antolakunde sindikalen eta enpresaburuen antolakundearen parte-hartze instituzionalarekin duen lotura materiala dela-eta, otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bat etorritik ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 20. artikuluekin.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren arau- eta ekonomia-kontroleko txostena, hiru xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen); urriaren 31ko 464/1995 Dekretua, zeinaren bidez garatzen baita nola egin barruko kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea EAEn, eta 6/2022 Legearen 23. artikulua.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikuluan c) letran xedatuta dagoenaren arabera, eta 3/2005 Legearen azken xedapenetako lehenengoan eta 6/2022 Legearen 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

12.– Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitako dokumentazioak osatuko du; prozedurari buruzko memoria laburra erantsiko zaio, aipatutako 24. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

13.– Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Kasu honetan, ez da beharrezkoa Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea, eta ez zaio egin behar aurretiazko jakinarazpenik Europako Batzordeari (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren —EBFT— 108.3 artikuluan aurreikusita dago jakinarazpen hori).

14.– Gobernu Kontseiluak onartzea.

Egiteko prozedura amaitzen denean, lege-aurreproiektua, bai eta dagokion espedientea ere, Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, lege-proiektu gisa onar dezan, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Idazteko sistema.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua xedatzen duena betetzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera joko da, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin.

Prozedura Tramitagune bidez izapidetzea.

Prozedura Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, bat etorritik Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenarekin —54/2025 Ebazpena, argitara ematekoa arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onartzeko Erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera—.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hasiera ematea EAEko parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko lege-aurreproiektua egiteko prozedurari.

Bigarrena.– Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza izendatzea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren bitartez, lehen aipatutako prozedura izapidetzeko organo arduradun.



Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren iragarki-taulan eta Legegunea lankidetzagunean ezagutzera ematea, bat etorritik Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenarekin (54/2025 Ebazpena, argitara ematekoa arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onartzeko Erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera).

Laugarrena.– Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezkotasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

MIGUEL TORRES LORENZO

**Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta
Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua**